Sintaxi-kaiera

Euskararen analisi sintaktikoaren hastapenak

Xabier Artiagoitia
Sergio Monforte

Udako Euskal Unibertsitatea eta
Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilbo, 2026

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Euskal Herriko Unibertsitatea
© Xabier Artiagoitia, Sergio Monforte

UEUren ISBNa: 978-84-8438-967-5
UPV/EHUren ISBNa: 978-84-1319-807-1
Lege-gordailua: BI-00977-2026

Inprimategia: ABZ Impresión Digital
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak:
UEU. Erribera 14, 1.D Bilbo 946 790 546 argitalpenak@ueu.eus www.ueu.eus
EHU. argitalpenak@ehu.eus www.ehu.eus/argitalpenak
Elkar Banaketa: Haizpea Industria gunea, 1 ADUNA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du; liburuaren jakintza-alorreko aditu batek ebaluatu du jatorrizkoa, *peer review*-erako ebaluazioan, egilearen daturik ezagutu gabe (*double-blind*).

Aurkibidea

Hitzaurrea **11**

1. Sintaxia lantzen: oinarrizko zenbait kontzeptu **13**
1.1. Hizkuntza, gogoa ikusteko leihoa 13
1.2. Kontzeptuak argitzen: gramatika eta barne-hizkuntza; gramatika eta gramatika unibertsala 16
1.3. Nola aztertu (barne-)hizkuntza? Sintaxia, gramatika. 20
1.4. Batasuna hizkuntz(et)an: uniformetasuna eta aldakortasuna 23
1.5. Zenbait oinarrizko kontzeptu 30
1.6. Laburpena 33
Gaian sakontzeko 34
Ariketak 35

2. Sintagma-egitura **37**
2.1. Kategoria motak 37
2.1.1. Kategoria lexikoak 38
2.1.2. Kategoria funtzionalak 39
2.1.3. Kategoriak eta sintagma-egitura 39
2.2. X' egitura 40
2.2.1. Sintagmek burua dute 41
2.2.2. Sintagmen lehenengo islapena eta osagarria 42
2.2.3. Sintagma-egitura ixten: espezifikatzaileak 45
2.2.4. Azkenengo jokalaria: adjuntuak 47
2.2.5. X' egitura beste sintagmetan probatzen 51
2.3. Eta laguntzailea zer? 52

2.4. Teminologian apur bat sakontzen 57
2.5. Ordena ez-kanonikoak 59
2.6. Laburpena 64
Gaian sakontzeko 66
Ariketak 67

3. Aditzaren eremua: aditz-sintagmaren egitura 69
3.1. Aditzak eta argumentuak 69
3.1.1. Aditzak eta argumentu-egitura 69
3.1.2. Bestelako hautapenak argumentu-hautapenaz harantzago 72
3.1.3. Argumentuak eta sintaxia lotzen 73
3.1.4. Subjektua aditz-sintagmaren barruan sortzen da 75
3.1.5. Argumentuak eta posizio sintaktikoak lotzen 82
3.1.6. Subjektuak eta Denb/Lag kategoriaren espezifikatzaileak 83
3.2. Aditz motak argumentuen arabera 85
3.2.1. Aditz iragangaitzak: aditz ezergatiboak eta ezakusatiboak 85
3.2.2. Hiru argumentuko aditzak eta AS oskolen analisia 87
3.2.3. AS oskolen analisiaren unibertsalizazioa 90
3.3. Aditz-txandakatzeen sarrera 94
3.3.1. Inkoatibo-kausatibo txandakatzeak 95
3.3.2. Aditz iragankorretako aldaera inpertsonalak eta AS oskolak 96
3.4. Laburpena 98
Gaian sakontzeko 99
Ariketak 100

4. Denbora-sintagmaren eremua: laguntzaile-kategoriaren azterketa 105
4.1. Aditz-sintagma: aski ote? 105
4.2. Denbora-sintagma aurkezten 108
4.2.1. Zer da denbora-sintagma eta zergatik behar dugu? 108
4.2.2. Denboraren eta aditzaren dantza: buruz buruko mugimenduak 113
4.3. Subjektua denbora-sintagmaren espezifikatzailean? 118
4.3.1. Subjektuak ere mugitzen dira: DS-mugimendua 122
4.4. Aspektu-sintagma aurkezten 124
4.4.1. Aspektu-sintagma euskaratik abiatuta 124
4.4.2. Aspektu-morfemen lana aditz-osaeran: aditz jokatuen eratorbidea 129
4.5 Aditz trinkoak, nola aztertu? Balizko analisia(k) 132
4.5.1. Zer dira aditz trinkoak eta nola funtzionatzen dute? 133
4.5.2. Aditz trinkoen eratorbidea 133

4.6. Ezeztapena....136
4.7. Laburpena....137
Gaian sakontzeko....138
Ariketak....140

5. Kasu-sistemak eta ergatibitatea....143
5.1. Kasu Teoria zertan den....143
5.2. Kasu Teoriaren hastapenak....145
5.2.1. Egiturazko kasua....145
5.2.2. Berezko kasua....151
5.2.3. Burzioren orokorpena eta subjektutasunaren arazoa....153
5.3. Euskarazko kasu-markaketa azaltzen: NOR Aditzen Hipotesia....155
5.4. Kasu-ezarketa ulertzeko modu berriagoak....161
5.5. Euskararen ergatibitatea iragankortasunetik azaltzen....166
5.5.1. Nahitaezko Kasuaren Parametroa zertan den....166
5.5.2. Aditz ezergatiboak eta Nahitaezko Kasuaren Parametroa....169
5.5.3. Euskalkiek predikatu ezergatiboetan duten banaketaz....172
5.6. Gaurko ikerketak: ergatiboa berezko kasua edo egiturazkoa?....174
5.6.1. Ergatiboa berezko kasua ote?....174
5.6.2. Ergatiboa egiturazko kasua ote?....176
5.7. Beste afera batzuk Kasu Teorian....177
5.7.1. Ohar bat datibo kasuari buruz....177
5.7.2. Mendeko perpaus jokatugabeen subjektuaren kasuaz....179
5.8. Laburpena....182
Gaian sakontzeko....183
Ariketak....184

6. Konplementatzaile-sintagma eta ezker-periferia, informazio-egitura eta beste....187
6.1. Konplementatzaile-sintagman barrena....187
6.1.1. Zer da konplementzaile-sintagma eta zertarako behar dugu?....187
6.1.2. Eta konplementatzaile-sintagma perpaus nagusietara zabaldu zen....189
6.1.3. Ezker-periferia eta buru-parametroa....195
6.2. Rizziren ezker-periferia zabaldua....199
6.2.1. Zer-nolako anabasa den KonpS!....199
6.2.2. Sintagma-ugaritasuna ezker-periferian: Rizziren (1997) KonpS zabaldua....200
6.3. Mendeko perpausak: osagarri eta adjuntuak....207

6.3.1. Mendeko perpaus osagarriak: nola funtzionatzen ote dute? 207
6.3.2. Mendeko perpaus adjuntuak: zeri atxiki? 209
6.3.3. Perpausak ere mugi daitezke 213
6.4. Mendeko perpaus jokatugabeak 214
6.4.1. Perpaus osagarri jokatugabeak: batere homogeneoa ez den talde bat 215
6.4.2. Mendeko perpaus osagarri jokatugabeak: zein sintagma mota dira? 221
6.5. Laburpena 227
Gaian sakontzeko 228
Ariketak 229

7. Konplementatzaile-sintagman sakontzen: ezeztapena, *nz*-mugida eta berauen azterbideak 231
7.1. Ezeztapena euskaraz 231
7.1.1. Ezeztapenaren anatomia: *ez* horren atzeko mundua 232
7.1.2. Lakaren azterbidea ezeztapenaz 236
7.1.3. Ortiz de Urbinaren ikuspegia 242
7.1.4. Ezeztapenaz: sintesi baterantz 246
7.2. Euskarazko galderen analisia 247
7.2.1. *Nz*-galderen eratorbideaz 249
7.2.2. Bai/ez motako galderez 252
7.2.3. Zehar-galderak euskaraz 254
7.3. Irla sintaktikoak 260
7.4. Euskararen bereizgarri pare bat 268
7.5. Laburpena 270
Gaian sakontzeko 271
Ariketak 272

8. Izen-sintagmaren egituraz: IS, DS eta beste 275
8.1. Izen-sintagma, IS eta DS 275
8.2. DS eta IS barneko egituran barrena 284
8.2.1. Izenaren argumentuak: osagarriak eta subjektuak 284
8.2.2. Izenaren adjuntuak: *-ko* sintagmak *revisited* 287
8.2.3. Emaitza- eta ekintza-nominalizazioak 289
8.2.4. Jabetza-genitiboak jabetza adieraz dezake: posesiboak 291
8.3. Adjektiboak eta perpaus erlatiboez ohar batzuk 294
8.3.1. IS barruko adjektiboen analisiaz 295
8.3.2. Perpaus erlatiboen izaeraz eta kokapenaz 296

8.4. Egitura funtzionala hedatzen: zenbatzaileak eta genitiboak 299
8.4.1. Zenbatzaileen analisia: Q-sintagma 299
8.4.2. Zenbatzaileek genitiboez dioskutena: posesibo-sintagma 307
8.5. Laburpena 310
Gaian sakontzeko 311
Ariketak 312

9. DS motak, Uztardura Teoria eta kuantifikazio-egiturak 315
9.1. DS mota nagusiak 315
9.2. Uztardura Teoriaren hatsarreetarantz 318
9.2.1. Anaforak 318
9.2.2. Izenordainak 322
9.2.3. Erreferentziadun espresioak 324
9.2.4. Laburpena: Uztardura Teoriaren hatsarreak 325
9.3. Eremu hurbilaren zehaztapena 328
9.3.1. Subjektuak erabakitzen du eremu hurbila 328
9.3.2. Izenordainak eta anaforak ez daude beti banaketa osagarrian 331
9.4. Uztardura Teoriaren zenbait arazo 334
9.4.1. Subjektu isilen beharra izen-sintagmaren barruan 334
9.4.2. Bihurkari posesiboen auzia eta nafar-lapurterazko zenbait datu 335
9.4.3. Linschmann-Aresti legeaz azken ohar bat 339
9.4.4. Anaforak subjektu direnean 340
9.5. Kuantifikazio-egituretarako sarrera 341
9.5.1. Izenordainak (eta anaforak) aldagai direnean 341
9.5.2. Zenbatzaile- edo kuantifikazio-egituren besarkadurak 343
9.6. Laburpena 347
Gaian sakontzeko 348
Ariketak 349

10. Kapituluen laburpena 351
10.1. Hizkuntza, gogoaren leihoa 351
10.2. Sintagmen arkitektura 352
10.3. Aditzak, argumentuak eta aditz-sintagmaren egitura xehea 355
10.4. Aditzaren gaineko arkitektura: denbora-sintagma eta beste 360
10.5. Kasuak, Kasu Teoria eta ergatibitatearen logika 362
10.6. Ezker-periferia eta perpausen arkitektura 367
10.7. Ezeztapena, galderak eta irlak 369

10.8. Izen-sintagmaren arkitekturan barrena 373
10.9. Uztardura Teoria 378

Bibliografia 383

Glosarioa 401

Hiztegi laueleduna 413

Hitzaurrea

Eskuliburu hau, irakurle, beharrizan eta arrangura zenbaiten uztarduratik sortu dela esan liteke. Beharrizanak aipatzean, buruan darabilgu sintaxi-teoriaren oinarriak eta lanabesak azalduko zituen liburu baten beharra ikusten genuela geure inguruan. Badira, noski, sintaxia jorratzen duten euskarazko liburuak, baina irudipena genuen horietariko asko zaharkituta geratu ote diren edota teknikoegiak ote ziren, edo agian gauza biak batera. Begitantzen zitzaigun liburu horiek guztiak ez zeudela agian ikasleen interesen arabera egituratuta edo gaur egungo ikasleengan pentsatuta.

Gure arrangura, alde horretatik, irakurlearekin adeitsua (ingelesez hitzetik hortzera erabiltzen den *reader-friendly*) izango zen oinarrizko eskuliburu bat eskaintzea izan da, mugaren alde bietako ikasleei arreta emango ziena. Izan ere, Xabier Artiagoitiak EHUren Gasteizko Letren Fakultatean *Euskal Sintaxia* izeneko ikasgaia urte askotan erakutsi du, eta Sergio Monfortek UPPAren Baionako campusean bizpahiru urtez irakatsi du antzeko ikasgaia Euskal Ikasketen Lizentzian. Gogoan genuen eskuliburu horrek euskal sintaxiaren hastapenak landu beharko zituen (euskaraz, jakina) baina hizkuntzen arteko ikuspegi erkatzaile batek ere gidatu beharko zuen.

Liburua, beraz, testuinguru horretan ulertu behar duzu, irakurle. Hizkuntzari lotutako unibertsitate-ikasketetako ikasleak eduki ditugu jomugan; ez hizkuntzalaritzaz ezer ez dakiten ikasleak, jadanik urtebetez edo agian urte bitan hizkuntzalaritzako oinarrizko formazioa jaso dutenak baino. Aldi berean, saiatu gara kontu teknikoak hurbiltasunetik eta tonu errazean azaltzen eta azalpenak errotzeko balioko zuten ariketak proposatzen. Eskuan duzun hau ez da, hartara, letratu handientzat, baina ezta deus ez dakitenentzat ere, harako hark esaten zuen moduan.

Esan berri dugun hori argudiatzeko moduan gaude. Hara: hamar kapituluk osatzen dute liburua, begi-bistakoa da hori aurkibideari so eginez gero, baina hamargarrena liburu osoaren laburpen modukoa da balizko irakurlearen eta egileon arteko elkarrizketa eran antolatua. Hori ez ezik, kapitulu bakoitzaren amaieran gaian sakontzeko atal bana eta ariketak ere txertatu ditugu, irakurle-ikaslearekiko konpromisoaren erakusgarri. Ariketen soluzioak ez dira inola ere itxiak, baina ez daude liburuaren barruan jasota; hala ere, UEUren eskuzabaltasunari esker, erantzunak edota iruzkinak jasotzen dituen dokumentu bat izango da laster nahi duenaren eskura, dohainik. Liburuak asmo didaktikoari azkeneraino eusten dio: azken kapituluaren ondorengo bibliografiarekin pozik ez eta kontzeptu nabarmenen glosarioa ere sartu dugu, irakurlearen lanaren

erraztaile; horren ostean, *euskara-gaztelania-frantsesa-ingelesa* hiztegi laueledun bat txertatu dugu, jakin-mina duenak euskarazko sintaxi-terminoak, liburuan landu ditugunak behintzat, aldameneko hizkuntzetan nola dabiltzan argi eduki dezan.

Ez zaitugu beharrik gabe aspertuko, irakurle. Esan dezagun, amaitzeko, 2024ko deialdian UEUk deitutako unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzeko diru-poltsa eskuratu izanak egin duela posible liburua idaztea eta gure esker ona adierazi nahi diogu UEUri horregatik. Zorretan gaude, halaber, eskuizkribuari ohar eta iruzkin joriak egin dizkion aditu anonimoarekin. Eta, nola ez, gure ikasleei, lehenagoko, oraingo zein etorkizunekoei ere, eskerrak ematen dizkiegu, euren oharkabeko laguntzagatik, maiz puntu zailak non diren erakusteagatik, sarri askotan ikerketaren sustatzaile gertatzeagatik, eta noiz edo behin euren eroapenagatik ere.

Izan dadila liburu hau euskal sintaxia gozatzeko aitzakia eta abagunea.

Bilbon, 2026ko maiatzean

Xabier Artiagoitia
Sergio Monforte

1. Sintaxia lantzen: oinarrizko zenbait kontzeptu

Kapitulu honek liburuaren abiapuntua eta guk hartutako ikuspegi sortzailearen oinarriak azaltzea du helburu. Lehenik, hizkuntza nola ulertzen dugun eta zergatik den aztergai interesgarria argituko dugu. Bigarrenik, gramatikaren kontzeptua eta hizkuntza aztertzearen azken helburua zehaztuko ditugu. Jarraian, hizkuntza aztertzeko moduaz jardungo dugu, ondoren hizkuntza-batasunaren eta hizkuntza-aldakortasunaren berri nola eman azaltzeko. Azkenik, 1.5. atalean, funtsezkotzat jotzen ditugun zenbait kontzeptu gogoratuko ditugu.

1.1. Hizkuntza, gogoa ikusteko leihoa

Koeneman eta Zeiljstra (2017) irakasleek beren sintaxirako sarrera-liburuan, umore puntu batez betiere, aditzera ematen dute gaur egun ez dagoela hizkuntzatik hizkuntzara itzulpen akasgabeak egiten dituen makinarik (Google Translate, antza, ez da benetako hautagaia haientzat). Baina, edozein kasutan, gaineratzen dute ez dagoela makinarik (gure kasuan euskarazko) edozein perpaus ona edo txarra den ebatziko duenik (ChatGPTk agian noizbait bai?). Sintaxilarioi gustatzen zaizkigun jolas antzekoek balio dezakete puntu hau erakusteko:

(1) Jonek liburu bat hartu zuen apaletik.
(2) Jonek bat hartu zuen apaletik liburu.
(3) Liburu batek Jone hartu zuen apaletik.
(4) Jonek zuen liburu bat hartu apaletik.

(1-4) bitarteko perpausak geuk asmatuak dira, ez dira inongo nobela edo irratsaiotik hartuak; eta, hala ere, edozein hiztunek jakingo luke esaten lehen perpausa ona dela, bigarrena ez dela perpausa, hirugarrena bitxia dela gaur egungo munduan. Eta laugarrenari buruz zer esan? Sarako hiztun batek ontzat emango luke Arratiako euskaldun batentzat arrotza den joskera hori; halakoetan % sinboloa ipini ohi da, hiztun batzuendako bai baina beste batzuendako ez dela ona adierazteko. Makina batek horrenbeste esango liguke? Gaur-gaurkoz, ezetz dirudi[1].

1. Liburu honen egileok proba txiki bat egin genuen goiko adibideen harira adimen artifizialeko aplikazio batekin, adibide guztiak batera aurkeztuta. Espero bezala, (4) perpausari buruz delako programak ez zuen ezer eduki esateko eta zuzenean onartezina dela ebatzi zuen. (3) perpausari buruz, bai esan zuen perpausa ez zela semantikoki egokia. Bestalde, (2) perpausa zuzentzeko aholku batzuk eman zituen, gehienak «bat» eta «liburu» sintagma berean elkartzeari lotuta, baina, interesgarriro, aplikazioak ez zuen «liburu(en) apaletik» berrinterpretazioaren aukera aipatu. Laburbilduz: gizakiarekin alderatuta, informazio handiagoa eman dezake AIk (eta onargarriak ez diren hurrenkerei buruz iradokizunak egin), baina huts egiten du oinarrizko zenbait intuizio edo iritzi ematean. Ez ahaztu, edozelan ere, AI gizakiak elikatzen duela.

Hiztunak perpaus onak eta txarrak bereizteko daukan oharkabeko gaitasun hori, makinek berezkoa ez dutena, da gramatikarioi ardura diguna. Zergatik ardura digu? Bada, funtsean giza gogoaren gakoetako bat delako hizkuntza, eta hizkuntza hobeto ulertzen dugun neurrian gogoa ere hobeto ulertuko dugula uste dugulako [*Gogoa* diogu, baina berdin esan genezake *gogo-garuna*; izan ere, hizkuntzak izaera kognitiboa du, adimenarekin lotzen baita, bai eta dimentsio fisikoa ere, gure buruan nola edo hala fisikoki presente baita. Aurrerantzean, menturaz, garuna esaten badugu, gogo-garunaren zentzuan erabiliko dugu][2]. Alde horretatik, perpaus onak eta txarrak bereizteko gaitasun hau gogoaren ikerketaren alorrean kokatzen da, zientzia kognitiboan alegia, giza adimena aztertzen duten zientzien artean beste era batera esanda.

Baina goazen apurka-apurka. Benetan laguntzen al digu euskarazko perpausen inguruan hausnartzeak gogo-garuna hobeto ezagutzen? Ez ote genituzke hizkuntza gehiago ere aintzat hartu beharko? Zuzen zabiltza, irakurle. Izan ere, neurri handi batean horixe da gramatika sortzailearen historia: Chomskyk (1957) *Syntactic Structures* liburua plazaratu zuenetik hainbat eta hainbat hizkuntzaren arauen deskribapena egin izan dute gramatikariek, hizkuntza horietako bakoitzean zer den perpaus ona eta zer ez arakatu nahian, baina akabuan denak bat etorri dira puntu batean: hizkuntzatik hizkuntzara joanez, ikaragarriak dira perpausak eratzeko orduan hizkuntza guztietako arauen artean dauden kidetasunak. Eta kidetasun horiek ezin dira kasualitatea izan, giza garun guztiek partekatzen duten ahalmenaren nolabaiteko ondorio baizik. Beraz, komeni da hizkuntza guztiak aintzat hartzea, bai, baina hizkuntza bakarra aztertzeak ere argibide nahiko eman diezaguke gizakiok partekatzen dugun ahalmenaz.

Adibide xume bat erabil dezagun hizkuntza guztiek agertzen duten ezaugarri baten erakusgarri: errekurtsibitatea. Jo dezagun perpaus hau bota duela norbaitek:

(5) Nahikarik buruz gol ikaragarria sartu zuen.

Interesgarriro, perpaustzat jotzen dugun unitate luze samar hori beste perpaus baten barruan txerta dezakegu. Esaterako:

(6) Kazetariak zerbait idatzi zuen.
(7) Kazetariak *Nahikarik buruz gol ikaragarria sartu zuela* idatzi zuen.

2. Ingelesez, *mind* da ohiko terminoa gogoaz hitz egiteko, eta hizkuntzak garunean dukeen leku fisikoaz jarduteko *brain* erabiltzen da. Kurioski, Koeneman eta Zeiljstra autoreek *brain* darabilte gora eta behera, une oro, benetan *mind-brain* esan nahi dutelarik, gogo-garuna alegia.

Beraz, perpausak diren unitateek beren baitan beste perpaus bat eduki lezakete. Eta ez hori bakarrik; perpaus bat barruan duen perpaus hori beste perpaus baten barruan ere txerta liteke, nola ez. Hona hemen aurreko adibidetik tiraka egindako proba:

(8) Kazetariak *Nahikarik buruz gol ikaragarria sartu zuela* idatzi zuela esan duzu.

Kortxeteak ipiniaz argiago adieraz dezakegu hau agian:

(8') $[_3$ (zuk) $[_2$ Kazetariak $[_1$*Nahikarik buruz gol ikaragarria sartu zuela*$_1$] idatzi zuela$_2$] esan duzu$_3$].

Eta errekurtsibitatearen kate hau, printzipioz, areago luza genezake *uste dut*... edo *Amaiak esan du uste dudala*... bezalako perpausen barruan aurrekoak txertatuaz. Errekurtsibitatearen abantaila bat hauxe da: nahi bezain luzeak egin genitzakeela perpausak; puntu honetan, errekurtsibitatearen propietateak hizkuntzaren sortzezkotasun mugagabea erakusten du, betiere gure garunak perpausak prozesatzeko (perpaus luzeak ulertzeko) dituen mugak errespetatuaz. Baina haria ez dezagun gal: errekurtsibitatea hizkuntza guztiek omen duten propietatea da[3], ez da ingelesaren edo japonieraren edo euskararen ezaugarria, ez da kultura-tradizioaren garapena edo tribuko jakintsuen adostasunaren ondorio, hizkuntza guztiek eta hizkuntza guztiak erabiltzen dituzten *garunek* partekatzen duten ezaugarria baino. Beraz, giza hizkuntza guztiak mugatzen dituen arau modukoa da. Gu kezkatzen gaituen galdera, kasu honetan, hauxe da: zergatik? Zergatik daukate hizkuntza guztiek errekurtsibitatea? Nondik dator propietate hau? Kezka hori aurretik esan dugunarekin lotzen da: hiztunak perpaus onak eta txarrak bereizteko gaitasuna ikertzea giza garuna ulertzeko leiho bat da azken batean.

Chomskyren ikerketa-ildo honetan kokatzen dira hemen plazaratu diren zenbait ideia, hurrengo ataletan gutxika-gutxika aletzen joango garenak. Horren aurretik, baina, argi esan dezagun zergatik aukeratu dugun ikerketa-ildo hau. Funtsean, ondoen ezagutzen dugun ikerketa-ildoa delako, baita ere hizkuntzaren azterketa modu zientifikoan landu dutenen artean egokiena deritzogulako, eta, azkenik, hizkuntzari buruz galdera egokiak eta interesgarrienak egiten dituelako. Hori bai, hemen ez gara teoriarekin zurrunak izango: denborazko perpaus bat beti izango da denborazko perpaus bat aukeratzen duzun sintaxi-ikuspegia aukeratzen duzularik ere, eta, beraz, gure helburua, modu deskriptiboan baino ez bada ere,

3. Honetan bada eztabaida franko, pirãnha hizkuntza dela eta, baina azken ikerketek iradokitzen dute, Everettek garai batean esandakoaren kontra, ez dagoela hain argi hizkuntza horrek errekurtsibitatea falta duela (ik. Futrell eta beste, 2016).

sintaxia lantzeko erremintak eskaintzea izango da, modu ahalik eta argien eta atseginenean eskaintzea ere. Hortaz, ikuspegi chomskyarra gogokoa ez baduzu, gauza izan beharko duzu hemen lantzen duguna zure marko teoriko gogokoenera eramateko, berau zeinahi dela ere (gramatika funtzionala, tradizionala, gramatika erlazionala, kognitiboa, gramatika lexiko-funtzionala, *Head-Driven Phrase Structure Grammar*, edo guk al dakigu!).

1.2. Kontzeptuak argitzen: gramatika eta barne-hizkuntza; gramatika eta gramatika unibertsala

Arestian zirriborratu dugun ikuspegian ohikoak diren zenbait izen eta kontzeptu landuko ditugu jarraian. Horietako bat *barne-hizkuntza* da. Barne-hizkuntza ez da hizkuntza berezi bat, hizkuntza ulertzeko modu bat baino. Alegia, edozein hizkuntza (dela japoniera, dela ingelesa, dela euskara) barne-hizkuntza modura uler liteke; bestela esanda, hiztun batek bere gogo-garunean garatu duen gaitasun modura uler liteke. Lehenagoko (1-4) adibideei erreparatuta, esan genezake hiztun euskaldun batek badakiela perpaus onak eta txarrak bereizten, bere barne-hizkuntzari esker gauza dela perpaus bat ona, txarra edo dena delakoa denetz epaitzen. Bere gogo-garunean garatu eta lortu duen gaitasunak gidatzen du eginkizun horretan. *Barne* hitzak hemen hiztunak bere adimenean, bere gogoan (zentzu kognitiboan) duen egoerari egiten dio erreferentzia, baina baita garunean, nonbait, fisikoki kokatuta dagoen errealitateari ere. Beste era batera adierazita, hizkuntza bat jakitea hemen barruko gaitasun gisa interpretatzen dugu, hiztun arrunt batek *barneratuta* daukan gaitasuna; zentzu horretan barne-hizkuntza indibiduala da, ez taldearena[4].

Barne-hizkuntzari, edo hizkuntza gaitasuntzat hartzeko ikuspegiari, *kanpo-hizkuntza* kontrajartzen zaio: hizkuntzarekin egiten edo ekoizten duguna eta nolabait gizakiaz harantzago dagoena; horixe litzateke kanpo-hizkuntza. Beraz, *podcast* baten transkripzioa edo Maialen Lujanbioren bertsoak, are aurretik eman ditugun (1-4) perpausak har ditzakegu kanpo-hizkuntzaren lagintzat. Barne-hizkuntza, aitzitik, horiek guztiak ekoizteko erabiltzen dugun gaitasuna litzateke. Bakerren (2001) konparazio ezaguna gogoan hartuta, barne-hizkuntza (perpausak egiteko) errezeta litzateke eta kanpo-hizkuntza errezetaren ondorioz egiten dugun (perpaus) oro. Beraz, liburu honetan *ingelesa*, *japoniera* edo *euskara* aipatzen ditugunean, hizkuntza horietako hiztun (nahiko idealizatu) batek barneratuta daukan gaitasunaz ari gara, perpaus onak eta txarrak bereizteko mekanismoez ari gara. Hizkuntzak, hartara, barne-hizkuntza gisa ulertuko ditugu.

4. Horrexegatik dio Chomskyk (1986) *i-language,* berez *internal language* terminotik datorren arren, *internal*, *individual* eta *intensional* dela.

Gaitasuna eta *ariketa* etiketak ere erabili izan dira (Chomsky, 1965) puntu berdina erakusteko. Gure gaitasunari esker badakigu honako perpausa ez dela egokia:

(9) Jone geroago esango dizu zer gertatu den.

Hala ere, ez litzateke hain harrigarria hori euskaldun baten ahotik irtetea, arreta faltagatik, nekeagatik edo ariketari edo jardunari lotutako beste faktore batengatik (esaterako, perpausaren hasieran subjektuaren marka *erabakitzea* aditza bera zein izango den erabaki gabe); baina (9) esaten duenak berak ere badaki, bere gaitasunari esker, (9) perpaus horrek *Jonek* behar lukeela. Zer dakigun (gaitasuna) eta bat-batean zer esaten dugun (ariketa edo jarduna), beraz, ez dira gauza bera. Hizkuntzalariari lehenak ardura dio batez ere, hitz egiteko gaitasunak gizakia definitzen duen neurrian.

Kapituluaren amaieran aipatuko dugu nola iker litekeen barne-hizkuntza hiztunak bere gogo-burmuinean gertatzen denaren berri zuzenean emateko gauza ez badira. Orain beste galdera bati ekin diezaiogun: nondik dator barne-hizkuntza eskuratzeko ahalmena? Nola heltzen gara hizkuntza jakin bat bezalako kontu konplexu bat menderatzera? Erantzun erraz bat umetan imitazioz edo dedukzioz ikasten dugula izan liteke. Arazoa, baina, hauxe da: lehen hizkuntzaren jabekuntzaren literaturan ugari direla 2-5 bitarteko haurrek gurasoei edo zaintzaileei hizkuntza-kontuetan jaramonik egiten ez dieten kasuak edo egoerak. Ezagunak dira Braine psikolinguistak (Pinker, 1994, 281. or) bere seme-alabekin izandako ika-mikak berauek [*the other* + izen] «beste izen + artikulu definitua» ingelesezko egitura behar bezala esan dezaten (eta [**one other* + izen] egitura ezgramatikala bazter dezaten); kasu guztietan, umeek aitak esaten zuen edukiari bai baina akats gramatikalaren zuzenketari ez zioten jaramonik egiten. Gutiérrez eta Ezeizabarrenak (2022, 79. or.) beste horrenbeste diote: «Oso gutxitan zuzentzen dituzte esaldietako akats gramatikalak eta zuzenketak formaren gainekoak direnean, umeek ez dituzte aintzakotzat hartzen... gehienetan». Hona hemen haien adibidea:

(10) **haurra**: Aitatxo, Jon besoa apurtu du.
aita: Ez, Jonek apurtu du!
haurra: Bai, Jon apurtu du.

Hau da, haurrak muzin egiten dio aitak azpimarratu nahi dionari eta, horren ordez, temati, segitu egiten du edukiari erreparatzen eta *akatsa* dirudiena errepikatzen. Haurrek, beraz, ez digute kasu handirik egiten hizkuntzaz jabetzen ari direnean, eta beren kabuz egiten dituzte dena delako hipotesiak. Ikus:

(11) a. eta ez daben apurtu (= «eta ez zuten apurtu»).
b. nik ikusi doten (= «nik ikusi nuen»).
c. eta ure bota doskun guri (= «... bota zigun»).
d. baina gero garbitu ein doguzen (= «garbitu egin genituen»).
e. ez doten hartu minik (= «ez nuen hartu minik»). [Barreña, 1995, 210. or.]

Hemen haur koxkorrek (3;00-3;06 urtekoek!!) *desegokiak* diren (edo helduei behintzat sekula entzun ez dizkieten) iraganaldiko adizkiak sortu dituzte, inork aipatu ez dien eta beren senak iradoki dien orokortze edo arau berdintzaile bat aplikatuz[5]. Hizkuntza-jabekuntzaren prozesuan, hartara, beren-beregi esandako arauek ez omen dute pisu handirik, haurrak ahalegin berezirik gabe jabetzen dira hizkuntzaz beren kabuz asmatutako estrategiak erabiliaz, eta hori hala da espezie osoan barrena, dela Japonian, dela Ingalaterran, dela Euskal Herrian, halako moldez non baldintza normaletan haurrak 5-6 urterekin hizkuntzaren muinaren jabe egin diren. Sen batekin parekatu izan den hizkuntzaz jabetzeko estrategia unibertsal hori, gurasoen eta ingurukoen inputa behar duena eta aldi berean zuzenketa esplizituarekiko axolagabe jokatzen duena eta elementu bereziak dituena (haurrek beren hipotesi eta erritmoak dauzkatelako eta akabuan, garapena ohikoa bada behintzat, ondo hitz egiten amaitzen dutelako), normalean lau argudiorekin defendatu izan da. Banan-banan berrikusiko ditugu argudio horiek.

#1. *argudioa*. Lehendabizi, haurrek prozesuaren amaieran gaitasun mugagabea lortzen dute (*e.g.* besteak beste errekurtsibitateari esker) jaso duten inputa mugatua den arren (eta input hori, gaineratu genezake, agian haurretik haurrera, familiatik familiara, are kulturatik kulturara, aldakorra den arren).

#2. *argudioa*. Bigarrenik, haurrek jasotzen duten inputa, entzuten duten hizketa, sarri akastuna izaten da, zalantzaz edota marmarrez betea, anbiguoa. *Estimuluen pobrezia* esaten zaio honi. Estimuluen pobrezia jasotzen dugun inputaz harantzago doa sarritan. Esaterako, hiztunei ez zaie, ez zaigu, inoiz irakatsi (12a) perpausa ona dela eta (12b) traketsa, baina badakite, badakigu, kontraste nabarmena dagoela:

(12) a. Nor esan duzu topatu duzula Gernikan?
b. *nor esan duzu nola topatu duzun Gernikan?

5. Toki batzuetan (*cf.* Busturialdean) bai entzun eta esaten dira haur hauek sorturiko iraganaldiko adizkien antzekoak, baina hori ez da (11)-ko datuak ekoitzi zituzten haurren gurasoen kasua.

Lehenaren kasuan, *nor* galdetzailea *topatu* aditzaren osagarri posizioan sortu dela pentsa dezakegu eta aurreratu egin dela perpaus nagusira; aurreratze hori ez da zilegi bigarren perpausean (hemen *nor* galdetzaileak segitzen du *topatu* aditzaren osagarri izaten), baina mendeko perpausa galderazkoa izateak egoera zeharo aldatzen du. Harira etorrita, kontua da inor ez zaigula hasi umetan egitura bi horien berri ematen eta azalpen gramatikalak harilkatzen; seguru asko (12a) eta (12b) perpausak ez ditugu inoiz entzun, eta, hala ere, *badakigu* kontrastea dagoena, hori nola dakigun azaltzeko gauza ez bagara ere[6]. *Estimuluen pobrezia* hori gorabehera, arrakastaz bururatzen dute haurrek jabekuntza-prozesua.

#3. *argudioa*. Hirugarren arrazoia hizkuntza-biologiak emandako sen baten modukoa dela esateko, *adin kritiko*arena da. Biologiak espezie osorako zehazten dituen gaitasunek adin kritiko bat dute, zeinetik aurrera garapena ez den naturaltasunez egiten (edo, besterik gabe, ez da gertatzen). Ikusmenak adin kritikoa daukan moduan, hizkuntza-jabekuntzak berak berea izango luke, 8-10 urteren inguruan (iritzi guztiak ez datoz bat).

#4. *argudioa*. Azkenik, laugarren arrazoia hizkuntzaren unibertsaltasuna genuke. Gizakia den leku orotan, hizkuntza ageri zaigu, antzeko ezaugarriekin betiere (dela perpausak eratzeko moduan, dela gramatika kategorien inbentarioan, dela errekurtsibitatea bezalako ezaugarrietan). Beraz, antz edo funts hori ezin da kulturaren edo halabeharraren ondorio izan, giza bereizgarri biologikoa izan behar du.

Testuinguru honetan ulertu behar ditugu *gramatika* eta *gramatika unibertsala* direlakoen kontzeptuak. *Gramatika* hiztunak bere gogo-burmuinean garatu duen barne-hizkuntzari deitzen diogu, bere hizkuntzako perpaus onak eta txarrak bereizteko duen gaitasunari alegia. Hizkuntzalariok gaitasun hori esplizitatzeko egiten dugun azalpen-saioari ere esaten diogu gramatika. Zentzu horretan, euskal gramatikaren parte bat (hau da, euskal hiztunak duen gaitasunaren parte bat) da, esate baterako, hemen errepikatuta ematen ditugun (1-4) perpausen arteko kontrasteak azaltzea:

(1) Jonek liburu bat hartu zuen apaletik.
(2) * Jonek bat hartu zuen apaletik liburu.
(3) # Liburu batek Jone hartu zuen apaletik.
(4) % Jonek zuen liburu bat hartu apaletik.

6. Euskarazko galdetzaileak beren jatorrizko perpausetik mugitzen direla ez da gramatika tradizionaletan aipatzen den kontua, inor gutxi da horretaz jakitun. Datuok ezkutatzen duten murrizketara geroxeago (zazpigarren kapituluan) itzuliko gara.

Hots, *liburu* eta *bat* bezalako elementuek elkar hartuta osatzen duten unitatea ezin dela banatu edo desegin euskal gramatikaren barneko arau bat da; (1-2) ikusita deduzitzen dugun araua da eta nolabait hiztunak duen berezko jakintza islatzen duena, hiztunek ez baitute (2) onartzen; horrexegatik markatzen dugu izartxo batekin. % ikurrak hiztunen arteko desadostasuna adierazten du, esan dugunez, eta # sinboloak desegokitasun semantikoa zein pragmatikoa markatzen du.

Gramatika Unibertsala (GU), berriz, barne-hizkuntza guztiak aztertuaz antzematen diren propietateek osatzen dute, hizkuntza konkretu guztien itxura baldintzatzen duten propietateen multzoa, gure espeziearen bereizgarri dena. Barne-hizkuntza guztien aurretik gizakiok partekatzen dugun ahalmena da GU, ingurugiroan dagoen hizkuntza entzun eta harekin harremana izatearen ondorioz barne-hizkuntza bat edo beste garatuko duena. Hizkuntza-jabekuntza, zentzu honetan, esperientzia aurretik biologiak eman digun ahalmen baten eta inguruko datu pizgarrien arteko moldaketa bat da, eta amaieran hizkuntza partikular bat (edo gehiago) barneratzeko, barne-gramatika bat lortzeko aukera ematen digu.

Gramatika Unibertsalaren kontzeptuak eboluzio handia eduki du Chomskyren lehen lanetatik hona (van Gelderen, 2017, 1. kap). Hasierako urteetan (esaterako, 1975eko *Reflections on Language* liburuan) Gramatika Unibertsala gutxi gorabehera gizakiak jaiotzaz hizkuntza garatzeko duen (eta biologikoki zehaztuta datorren) ahalmen boteretsua zen, inguruko esperientziarekin hartu-emanean hizkuntza baten gramatika sortuko zuena. Nolabait esateko, edozein giza hizkuntzaz jabetzeko biologiak ematen digun lanabesa zen Gramatika Unibertsala. GU horretan hatsarre, arau edota parametro asko egon zitezkeen. Gaur egun, aitzitik, Chomskyk (2005) pentsatzen du hizkuntzaren diseinuan hizkuntzatik kanpoko faktoreek ere eduki dezaketela garrantzi handia: konputazio eraginkorrari lotutako hatsarreek, kognizio-printzipio orokorragoekin lotzen diren ekonomia-hatsarreek, eta abarrek. Zentzu horretan, hizkuntzaren bereizgarri diren hatsarre soilak hasieran uste baino gutxiago izan litezke. Nolanahi ere, gure liburu honen helburu apaletarako, Gramatika Unibertsalaren lehen definizio zabalak balio dezake eta, beharrezkoa denean, horren inguruko ñabardurak aipatuko ditugu.

1.3. Nola aztertu (barne-)hizkuntza? Sintaxia, gramatika

Ingelesa, japoniera, gaztelania, euskara hizkuntzen arau-sistemak arakatuaz hizkuntzalariak konturatu dira arau-sistema horien azpian printzipio berdinak ezkutatzen direla, gizaki guztiok dugun burmuinak partekatzen dituen printzipioak, gogo-garunak behartutako ezaugarriak. Garunak horrela garatzen ditu hizkuntzak, nolabait esanda.

Baina nola aztertu hizkuntza? Izan ere, gramatika perpaus onak eta txarrak bereizteko gaitasuna bada, denok dugu gramatika, baina ez dakigu nola lortu dugun, eta ez daukagu inoren garunean sartzerik, *post mortem* ez bada (eta, kasu horretan ere, ikustekoa litzateke lezio argirik atera dezakegun hizkuntzaz). Beste alternatiba bat garunak eskaneatzea da, edo garunaren jarduera aztertzea hizkuntzaren alderdiren bat edo beste erabiltzen dugunean (ikus *Gaian sakontzeko* atala). Baina ideia horrek, funtsean, oinarrizko arazo bat ipintzen digu begien aurrean: hizkuntzaren alderdiren bat edo besteren funtzionamendua garunean aztertzeko, aldez aurretik hizkuntzaren funtzionamenduaren ideia edo hipotesiren bat egin behar izan dugu. Eta hori hizkuntzalariek egiten dute aurretik: hizkuntza baten perpaus onak eta txarrak aztertu ondoren, hiztunak bereizketa nola egiten duen hausnartu eta hipotesiren bat edo beste egiten dute. Kafe-makinaren simila erabil dezakegu: makina sofistikatu samarretan, kafe-aleak sartu eta botoia sakatuta, kafe beroa irteten da. Beraz, zerbaitek ura berotu, kafea eho, biak nahasi, eta *kafea* deritzona isurtzen du. Horrenbeste badakigu makina barrua aztertu gabe ere. Horrelaxe jokatzen du gramatikariak gramatikarekin eta hizkuntzaren arau multzoekin.

Gramatika aztertzea, beraz, perpaus onak eta txarrak bereizteko gaitasunari lotzen zaio, eta hiztunak dituen intuizioetan oinarritzen da neurri batean. Intuizio horiek abiapuntu, hipotesi batzuk egiten dira, eta datu berriekin erkatzen dira. Horren arabera egiaztatu egin daitezke hipotesiok, baina, sarri askotan, horiek doitu beharra dago eta datu berriekin erkatu, etengabeko kate batean. Prozesu hau batzuetan samurra izan liteke, eta malkartsua da sarri; beraz, atzera eta aurrera ibili beharra ohikoa izaten da. Hiztunek duten berezko jakintza edo intuizioa giltzarri da prozedura honetan. Eta bide klasikoek (corpusek, esaterako) ez digute balio? Bai, jakina. Kanpo-hizkuntzaren adibide diren datu multzoek (literatur corpusak, ahozko bildumak eta antzekoak) noski eman ahal digutela hizkuntzaren berri. Hala ere, ez ahaztu definizioz corpusetan perpaus onak baino ez zaizkigula agertzen. Adibide txiki batekin erakuts daiteke datu onen eta txarren jolas hau. Hamaseigarren mendetik badakigu euskaraz galde-hitz bat, *nz*-hitza ere deitua, mendeko perpausetik urrundu eta perpaus nagusiaren aurrera mugi daitekeela:

(13) Nor uste duk nizala (B. Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 169)
(14) Zer nahi duk dagiadan? (J. Leizarraga, *Testamendu berria*, 1571, Lk 18, 419)

Hots, horko *nor* eta *zer* horiek *nizala* [naizela] eta *dagiadan* [dagiadan, egin dezadan] aditzen atributu eta osagarri zuzen gisa interpretatu behar ditugu, hurrenez hurren. Horretan oinarrituta, pentsa liteke gaurko euskaran ere posible

dela galde-hitzaren urruntze hori; hala dela dirudi *Ereduzko Prosa Dinamiko*a corpusa arakaturik:

(15) Nori uste dute hauek sartuko diotela ziria? (*Odolik gabe*, A. Baricco/ F. Rey, 2020, 10. or.).

Kontua, baina, hauxe da: antzekoa dirudien perpausa ez dela ona:

(16) * nori daukate hauek zalantza ea sartuko dioten ziria?


Arestiko (16) perpausa ez da corpusetan azaltzen, hain zuzen ere onargarria ez delako. Baina galde-hitzen araua egokiro formulatzeko, hizkuntzalariak datu honen beharra ere badauka: alegia, hiztun ia guztientzat dela perpaus hori kaxkarra edo erdipurdikoa[7]. Datu hori bere txikian eta handian ezingo luke corpus batetik atera; jatorrizko hiztunei galdetuaz baino ezin du eskuratu[8].

Gramatika kontzeptura itzulita, liburu honetan ez diegu gramatikaren alderdi guztiei begiratuko, sintaxiari baino. Eta zer da sintaxia ba? Perpaus gramatikalak eta ezgramatikalak bereizten dituen gramatikaren atala dela esan genezake. Perpausak hitzen konbinazioak dira, eta hitzak nolabaiteko esanahia duten eta hots-konbinazio jakin bat duten unitate gisa irudika ditzakegu. Ondotxo dakigu perpaus bat ezgramatikala suerta daitekeela euskarazko hitz egokiak elkarrekin ipinita ere; arestiko (2) perpausean sumatu dugu hori. Hitzak onak badira baina konbinazioa ez, perpausa eraikitzean zerbaitek kale egin du. Sintaxia, beraz, perpausen eraikidura gidatzen duten arauez arduratzen da, zeintzuk konbinazio diren zilegi eta zeintzuk ez diren zilegi aztertzen du. Hitzei buruz esan duguna egia da hitz anitz dauzkaten perpausei buruz ere. Hots-kateaketa bereizia eta esanahi jakina dute perpausek: *Jonek Miren maite du* perpausak eta *Joneri Miren gustatzen zaio* perpausak ez dute hots aldetik hainbesteko antzik, baina hurbil daude esanahiaren aldetik hala ere; *Jonek Miren maite du* eta *Jone Mirenek maite du* perpausak oso antzekoak dira hotsen kateaketari dagokionez eta, alabaina, ez dute inondik ere gauza bera esan nahi. Perpaus batek duen hots-katea edo *musika* eta esan nahi duena bi faktoreren mende dago: zeintzuk hitz konbinatzen dituzun eta nola konbinatzen dituzun. Eta bi faktoreok sintaxiak baldintzatzen ditu. Beraz,

7. (15-16) datuek erakusten duten fenomenoari *Nz-Irlen Murrizketa* edo *Hertsidura* deritzo eta aspalditik da ezaguna (Ross, 1967). Funtsean, perpaus osagarri deklaratibotik bai urrundu daiteke galde-hitza edo *nz*-hitza zenbait aditzekin bederen, baina urruntzea ez da posible zehar-galderetan, berauek hasieran jada beste galde-hitz bat duten ber.

8. Gramatika sortzailean behintzat, *native speaker* edo jatorrizko hiztuna delakoak bere hizkuntzaz daukan oharkabeko jakintza iturri ezin hobea da datuak lortzeko.

minimoetara joanda, iduri du honelako gramatika eredu-irudi batean pentsatu beharra dagoela:



1. irudia. Gramatika atalen harremana.

Hau da, sintaxiak hitzen konbinazioa kudeatzen du, eta hori nolabait hitzek duten esanahitik eta musikatik independentea da. Horrelako eredu bat aintzatesteak ondorio interesgarri bat dauka: perpaus batek kale egiten badu, konbinazio-arazo bategatik izan daiteke (arestiko 2. adibidea, «sintaxi-errorea», nolabait); hots-arazo bategatik, txarto ahoskatzearren alegia, izan daiteke («hots-errorea»); edo, azkenik, esanahi bitxia duelako zein esanahirik ez duelako izan daiteke (*cf.* arestiko 3.a, «esanahi- edo semantika-errorea»).

1.4. Batasuna hizkuntz(et)an: uniformetasuna eta aldakortasuna

Esan dugu, 1.2. eta 1.3. ataletan hizkuntzen gramatikak arakatuta eta barne-gramatika horiei guztiei begiratu bat eman ondoren, gramatikariek normalean beti jarrera baikorra izan dutela: hizkuntza guztietan errepikatzen dira konbinazio-arau edo hatsarre berdinak, hizkuntza guztietan daude aditzak eta aditz-sintagmak, esaterako, edo hizkuntza guztietan formulatzen dira galdera irekiak galde-hitz batekin. Hizkuntzen arteko berdintasun edo uniformetasun hori gure gogo-garunak antzekoak izatearen ondorio, hizkuntza-biologiak markatzen duen gaitasuna izatearen ondorio litzateke. Hizkuntzen uniformetasunaren berri eman nahi duten kidetasun abstraktu horiei batzuetan *hatsarre* edo *printzipio* deitu izan zaie.

Chomskyk (1968) proposatu izan duen *Egitura Mendekotasunaren Hatsarrea* ('Principle of Structure Dependency' ingelesez) izan liteke horietariko bat. Hatsarre horrek dio hizkuntzak egitura eta egitura multzoak edo hierarkiak aintzat hartuta funtzionatzen duela, ezin saihestuzko modu batean. Zer esan nahi du honek? Bada, besterik gabe, hizkuntzaren funtzionamenduan *bigarren hitza* edo *lehen aditza* bezalako kontzeptuek ez dutela rolik jokatzen. Adibide ezagun bat aipatzearren, ingelesezko arau bat ekarri ohi da mahai gainera; bai/ez motako galderak egiteko, aditz laguntzailea aurreratzen da:

(17) The kid is happy.
ART haur dago pozik
'Haurra pozik dago'
(18) Is the kid [~~is~~] happy?
dago ART haur pozik
'badago haurra pozik?'

Hor, **is** adizki laguntzailearen hasierako lekuan ezabatuta utzi dugu aurreratu den adizkia. Jo dezagun, hala ere, beste honako perpausa dugula esku artean:


(19) The kid who is playing cards is happy.
ART haur nor da jokatzen karta.PL dago pozik
'Karta-jokoan dabilen haurra pozik dago'

Hortik abiatuta, bai/ez motako galdera egokia (20b) da, eta ez (20a):

(20) a. *Is the kid who [~~is~~] playing cards is happy?
b. Is the kid who is playing cards [~~is~~] happy?
'Badago karta-jokoan dabilen haurra pozik?'

Erantzuna erraz antzean eman dezakegu: lehenean okerreko adizki laguntzailea aurreratu dugu, subjektuaren barrukoa alegia, eta ez perpaus nagusiko adizki laguntzailea. Hartara, (20a) vs (20b) bereizteak halako eskema batean sinestera behartzen gaitu:

(21)



Edo arbola-diagramarik gabe ere:

(21') $[_{\text{perpausa}}\ [_{\text{subjektua}}$[the kid] who is playing cards] [is happy]]

Lehenengo *is* hori subjektuaren barruan dago, perpaus nagusitik urrun xamar, eta aditz-sintagmaren barruko bigarren *is* hori, berriz, nahiko hurbil dago perpaus nagusitik, hierarkikoki gorago. Erraza da kontua. Galdera da... ea (20a) bezalako perpausak aukera badiren hizkuntzetan barrena. Eta ezetz dirudi. Hau da, ez dirudi haurrek jabekuntza-prozesuan (20a) motako akatsik edo saiorik egiten dutenik: haurrek bai/ez motako galderak egiten ikasten dute, edo prozesu horretaz jabetzen dira akabuan, behin ere (20a) bezalakoak saiatu gabe, Crain eta Nakayamaren (1987) esperimentuak erakutsi duen moduan. Beraz, bai/ez motako galderetan ea lehen adizkiak edo bigarrenak balio duen aintzat hartzea ez da hizkuntzaren funtzionamendu arrunta; hierarkiak axola du, zein adizki den nagusi, zein dagoen egituran barrurago edo sakonago. Horrelakoa da hizkuntza: *be structure, my friend*. Hatsarre edo printzipio gehiago aipa genitzake, baina sarrerako kapitulu honetan ez zaitugu aspertu nahi, irakurle. Hatsarre horiek, nolanahi ere, bilaketa eta eztabaida latzen emaitza izan daitezke maiz, ez ikertzaileek lehen begi-kolpean harrapatzen duten zerbait.

Hizkuntzen uniformetasuna gizakiok partekatzen dugun sen edo ahalmen linguistikoan nolabait kodetuta datozen hatsarreen ondorio bada, nola azaldu aldakortasuna? Horra hor beste galdera interesgarri bat. Aldakortasuna Saussureren zeinu linguistikoaren hautazkotasunetik beretik hasten da: ez dago *halabeharrezko* erlaziorik «ugaztun haragijale etxekotua, arrazen arabera, hainbat tamaina edo eite dituen» kontzeptuaren eta *txakur/zakur*, *dog*, *perro* edo *chien* izendapenen artean; hizkuntza bakoitzak, ausaz sarri, bere adierazlea hartzen du. Hortik aurrera, aldakortasuna balio bitarretan oinarrituta funtzionatzen duten aukeren arabera antola zitekeela pentsatu izan da luzaro; *parametro* izena dute aukera horiek. Galderak eta galde-hitzak bi bider erabili ditugunez gero, har ditzagun atzera ere galdetzaileak hizpide. Hara[9]:

9. Lan honetan Leipzigeko glosatzeko arauekin bat egiten dugu: https://www.eva.mpg.de/lingua/pdf/Glossing-Rules.pdf.

(22)	a. John-wa ***nani-o*** kaimashita ka? Jonek zer erosi Q b. ****nani-o*** kaimashita John-wa ka? zer erosi Jonek Q Zer erosi zuen Jonek?'	japoniera
(23)	***Ima-ta-taq*** pay ranti-rqa-n? zer-ACC-gald berak erosi-zuen? 'Zer erosi zuen? '	Cuzco kitxua [Ortiz de Urbina, 1989, 250. or.][10]
(24)	a. * John bought ***what*** ? Jonek erosi.PST zer b. ***What*** did John buy? zer egin.PST Jon erosi 'Zer erosi zuen Jonek?'	ingelesa
(25)	a. ***Qu***'a-t-elle acheté? zer AUX bera erosi.PTCP b. Elle a acheté ***quoi***? bera AUX erosi.PTCP zer 'Zer erosi du berak?'	frantsesa

Perpaus horietan guztietan eskatzen da «Jonek/berak x erosi zuen» baieztapena egia bihurtuko luketen balizko erosgaien zerrenda moduko bat, eta erantzunak «kapela», edo «kapela eta euritakoa», «ez dakit» edo «deus ez» izan litezke. Beraz, hizkuntza guztietan egin daiteke galdera berdina, baina modua ez da berdina: japoniera SOV[11] tankerako hizkuntza da, bai, eta galdetzaileak (kasu honetan *nani-o*) ez da perpausaren hasierara mugitzen; mugituz gero, gainera, perpausa ez da gramatikala. SOV tankerakoa den Cuzco kitxuaz, aitzitik, osagarriari dagokion galdetzaileak (hemen *ima-ta-taq*) perpausaren hasierara egin behar du mugimendua. Ingelesez antzera gertatzen da, baina kasu honetan SVO hurrenkeratik abiatuta: galdera arruntean *what* galdetzaileak aditzaren osteko ohiko posizioa utzi eta perpausaren hasierara mugitu beharra du. Frantsesez, lehen begiratu batean behintzat, aukera biak dauzkagu: galdetzailea mugitzea eta ez mugitzea. Beraz, aldakortasun hori azaltzeko modu bat honako ildoaren arabera antola genezake: hizkuntzetan barrena galderak egiteko orduan galdetzaileak edo aurreratu egiten dira edo beren lekuan geratzen dira; kito. Azalpen horri puntu tekniko bat gehitu ahal diogu: galdetzaileak [nz] tasun morfosintaktikoarekin

10. Cuzco kitxuan ez ezik Inbabura kitxuan ere aurreratzen dira galdetzaileak:
(i) ima-ta-taj riku-rka-ngui [Cole, 1982, 23. or.]
zer-ACC-Q ikusi-zenuen
'zer ikusi zenuen?'

11. SOV = *subjektu-osagarri-aditza* hurrenkerari dagokio; SVO, berriz, *subjektu-aditza-osagarri* genuke. Nazioarteko terminologian ohikoagoa delako, V laburdura hobetsiko dugu A soilaren ordez.

identifikatu izan dira (izan ere, euskaraz galdetzaile guztiak hasten baitira *n-* edo *z-*z: *nor*, *norekin*, *noiz* vs *zer*, *zertaz*, *zein*). Beraz:

(26) giza hizkuntzen parametro bat:
a. hizkuntzek, galdera irekiak sortzeko, [nz] tasuna daukan hitza aurreratzen dute; edo
b. hizkuntzek, galdera irekiak sortzeko, [nz] tasuna daukan hitza bere lekuan uzten dute.

Edo sinplifikaturik:

(26') a. hizkuntzek [nz] tasuna duen hitza [+ aurreratu] aukeratzen dute; edo
b. hizkuntzek [nz] tasuna duen hitza [- aurreratu] aukeratzen dute.

Jakina, une honetan, (25) adibide parea ikusita, behartuta gaude esatera frantsesak bi bideak baliatzen dituela, horrek printzipioz gure parametro bikoitza konplikatzen duen arren[12]. Bego konplikazio hau gerorako. Nolanahi ere, ez dezagun iparra gal: hizkuntzen arteko aldakortasunaren iturria badirudi galdetzaileak bezalako elementu funtzionalen tasun txikietan bilatu behar dela; esaterako, [nz] edo [galdera] tasunak perpausaren hurrenkeran ondoriorik daukan ala ez.

Elementu funtzionalen tasun morfosintaktikoetan arakatu behar hori beste adibide batekin erakutsiko dugu: *-ela* vs *-enik* menderagailuen erabilerarekin hain zuzen ere. Bi horien arteko ñabardurari dagokionez, esan izan da (Elordieta eta Artiagoitia, 2018; Laka, 1990; Uribe-Etxebarria, 1994; besteak beste) bigarrena batez ere perpaus nagusiaren barneko ezetzak edo galdera batek zilegiztatzen dutela:

(27) a. Ez dute esan Jone hil denik.
b. Jone geroago etorriko denik uste (al) duzue?

Zentzu honetan zioen Lakak (1990) *-enik* konplementatzaile negatiboa zela, ezeztapenak (edo galdera batek) zilegiztatu behar duelako. Egia da *-enik* eta *-ela*, biak, izan daitezkeela zilegi testuinguru berean, baina ñabardura interpretatibo jakin batekin:

(28) a. Ez dute esan Jone hil denik.
b. Ez dute esan Jone hil dela.

12. Baliteke (25a) eta (25b) adibideak ez izatea guztiz berdinak: lehena erregistro jasoan da arrunta, bigarrena lagunartekoan. Beraz, baliteke gramatika bi izatea hemen (eta ez bi balioak onartzen dituen gramatika bat): frantses formalak (25a) hautatzen du eta frantses herrikoiak (25b). Ikus Bošković (2002) frantsesezko datuen ostean ezkutatzen den arazoan sakondu nahi izanez gero.

Lehen adibidean, hiztunak ez du presuposiziorik egiten Joneren heriotzari buruz, ez da makurtzen heriotza hori benetakoa den edo ez esatera; (28b) adibidean, aitzitik, Joneren heriotza benetako datutzat edo ematen du. Beste era batera esanda, (28b) adibidean ezetza esateari dagokio: ez dute esan «Jone hil da» (eta «Jone hil da»). Hasierako (28a) adibidean, aldiz, ezetzak perpaus nagusia eta mendekoa, biak, harrapatzen ditu. Horren aldeko datutzat ezezkako polaritatedun izenordainen agerrera eman dezakegu:

(29) a. Ez dute esan inor hil denik.
b. *Ez dute esan inor hil dela.

Inor bezalako izenordainak ezeztapenak egin behar ditu zilegi nolabait, baina *-ela* menderagailua duen perpaus batean perpaus nagusiko ezeztapenak ez du indarrik mendekoan *inor* zilegiztatzeko; *-enik* buru duen mendeko perpausean kontrakoa gertatzen da, eta *-enik* menderagailuak goiko (perpaus nagusiko) ezeztapenak mendekoan ere indarrean dagoela-edo seinalatzen du. Bigarren datu bat *-enik* eta *-ela* menderagailuek egiten duten presuposizioen inguruan Artiagoitia (2018) lanean aipatzen da Kempchinskyk (2009) gaztelaniarako egindako test batean oinarrituta:

(30) Dekanoak ez du sinesten ikasleek saria merezi dutenik...
a. baina nik bai b. eta nik ere ez
(31) Dekanoak ez du sinesten ikasleek saria merezi dutela...
a. baina nik bai b. # eta nik ere ez

Lehen adibidean, *-enik* erabilita ez dago hiztunaren aldetik presuposiziorik ikasleen merezimenduaz; hortaz, zentzua dauka hiztunak dekanoaren ustearekin bat egiteak edo ez egiteak. Bigarren kasuan, aitzitik, *-ela* menderagailua erabilita, hiztunak inplizituki onartzen du ikasleek saria merezi dutela; beraz, dekanoaren iritziaren kontrako jarraipena zentzuzkoa da, baina kontraesankorra dirudi ikasleen merezimendua onartu eta gero dekanoaren iritziarekin bat egiteak (# ikurrak horixe adierazten du, egoerarako, pragmatikoki alegia, desegokia dela jarraipena).

Gauzak horrela, iduri du nola edo hala jaso beharko genukeela menderagailu bien arteko jokamolde bereizia. Hauxe izan liteke modu sinple bat:

(32) *-ela* vs *-enik* menderagailuen arteko bereizketa
a. *-ela* = menderagailua, +deklaratiboa
b. *-enik* = menderagailua, +deklaratiboa, +ezeztapena

Hots, bien arteko alde bakarra da *-enik* menderagailuak baduela besteak ez duen tasun gramatikal bat. Horrelaxe azal genezake Gipuzkoako eta Bizkaiko hiztun ugarik egiten duten kontrastea.

Orain, zer gertatzen da *-enik* menderagailua ez duten hizkeretan? Horra hor erronka interesgarria aldakortasunaren berri emango badugu. Bada, hain zuzen ere, hizkera horietan ageri da honako perpausak arruntak direla:

(33) a. Ez dute erran nehor hil dela.
b. Beñatek ez du sinesten jainko bat badela eta nik ere ez.

Alegia, nafar-lapurterazko hiztunek ez dute eragozpenik «nehor hil dela» esateko beste batzuek «inor hil denik» esango luketen testuinguruan; beraz, *-enik* menderagailuak duen [+ezeztapena] balioa *-ela* menderagailuak ere eduki dezake *-ela* menderagailua besterik ez duten hizkeretan. Zirkulua ixteko, ikusten dugu (33b) perpausa ez dela kontraesan bat: hiztunak jainkoaren existentzia ez du egiazkotzat jotzen *-ela* menderagailua erabili arren: Beñatek eta «nik» ez dugu horretan sinesten, besterik gabe. Jainko bat badela egiazkotzat joko balu hiztunak, kontraesankorra litzateke Beñatek ez duela hori sinesten esatea, gero *nik ere ez* gehitzeko. Beraz, nafar-lapurterazko egoera honelatsu laburbil daiteke:

(34) *-ela* = menderagailua, +deklaratiboa (+ezeztapena)

Hau da, *-ela* menderagailuak mendebaleko eta erdialdeko euskaran *-ela* arruntak eta *-enik* menderagailuak hartzen duten erabilera biak hartzen ditu bere baitan, +ezeztapena balioa aukeran daukalarik. Adibide horretan, sumatzen dugu hizkuntzen (kasu honetan hizkeren) arteko aldakortasuna oso kontu sotiletara laburbiltzen dela sarritan: hitz edo morfema funtzionalen sarreran agertzen (ez) diren tasun gramatikal oso morfosintaktiko xeheetara[13].

13. Pellokeria dirudike *-ela* vs *-enik* bereizketa horrek, baina gaztelaniari so eginik konturatzen gara ez dela huskeria eta benetan tasun gramatikalen zehaztapena xeheki findu behar duela hizkuntzalariak. Ikus, esaterako, (28)-ko perpausen gaztelaniazko itzulpena:

(i) a. No han dicho que Jone haya muerto.
ez AUX esan COMP Jone AUX hil
'Ez dute esan Jone hil denik.'
b. No han dicho que Jone ha muerto.
ez AUX esan COMP Jone AUX hil
'Ez dute esan Jone hil dela.'

Joneren heriotza benetakotzat hartzea indikatiboarekin baino ez da igartzen; ez dago halako segurtasunik (ia) adibidean. Beraz, [+ezeztapen] tasuna, gaztelaniari eta frantsesari dagokienez, ez da menderagailuaren bidez gauzatzen (bietan *que* daukagu-eta), modu subjuntiboaren bitartez baino. Frantsesez ere badira halako kontrasteak, baina iritzi-aditzetara mugatzen da kontrastea (*cf.* Abouda, 2002). Tasunen eta elementu funtzionalen arteko lotura horietan aurkitu behar dira hizkuntza-aldakortasunaren gakoak.

Labur-zurrean, hizkuntzalariaren edo sintaxilariaren erronkak dira hizkuntzek partekatzen duten muina azaleratzea eta hizkuntzak bata bestetik bereiztera daramatzaten ezaugarriak aurkitu eta definitzea. Hizkuntzak funtsean oso berdinak direla bermatzen duten arauak edo ezaugarriak batzuetan gizaki orok daukagun hizkuntza-ahalmenaren hatsarre gisa irudikatu dira, eta kasu batzuetan baliteke hizkuntzatik kanpoko eragileen ondorio izatea, gure biologiaren ondorio bat nolabait: *Egitura Mendekotasunaren Hatsarrea*, esaterako, Gramatika Unibertsalaren hatsarretzat jo izan da, baina izan liteke konputazio eraginkorraren abantaila orokor bat, hizkuntzak ere partekatzen duena. Hizkuntzen arteko aldeen iturria, aldiz, elementu funtzionalen tasun morfosintaktikoen gauzapen diferentean bilatzen dute hizkuntzalariek: batzuetan forma orokor xamarra har dezakete tasun morfosintaktiko horien karakterizazioak (*e.g.* hizkuntzek [*±nz-hitza aurreratu*] aukera edukitzea, arestiko kasuan (=26) bezala) eta besteetan banakako morfema gramatikal edo funtzional jakinen analisira jo beste biderik ez dauka hizkuntzalariak, *lupetzara* sartu eta analisi oso zehatzak eginez (*e.g. -enik* eta *-ela* menderagailuen ñabardura eta ezaugarriak).

1.5. Zenbait oinarrizko kontzeptu

Kapitulua amaitzeko, atal honetan han-hemenka agertu zaizkigun eta, edonola ere, oinarrizkotzat eta aurrerantzean jakintzat emango ditugun zenbait kontzeptu azalduko ditugu, banan-banan azaldu ere.

Esaldia, perpausa. *Perpausa* subjektu batek eta aditz-sintagma batek osatzen duten ongi eratutako unitateari deritzo, baieztapen-ezeztapen, agindu, galdera edo eskea egiten duena, eta, beraz, ideia oso bat biltzen duena. Perpausa idealizazio bat da, abstraktua, hiztunaren gaitasunari edo barne-hizkuntzari dagokiona. Hiztunak ez ditu perpausak esaten, *esaldiak* baino. Alegia, *esaldi*etako bakoitza perpaus baten burutzapen edo gauzapen konkretua da.

Onargarritasuna, gramatikaltasuna. Perpaus bat onargarria denetz normalean jatorrizko hiztunak esango digu; onargarria iruditzen ez bazaio (hots, *txarra* baderitzo perpausari), izartxo batekin adieraziko dugu: **Jone ez etorri da* (‘Jone ez da etorri’ esan nahi dugularik). Zalantzazkotzat joz gero, orduan galdera marka aurretik duela adierazi ohi da: ?*norekin bizi ez den ez dakidan neska goizean ikusi dut*. Hiztunen artean perpaus batekin gorabeherak daudenean batzuek onartu bai baina besteek onartzen ez dutelako, % sinboloa erabiltzen dugu: %*Jonek euskara ikasi zuen herria ikaragarri gustatzen zait* perpausaren kasua izan liteke hori, hiztun askok erraz interpretatzen dutelako *Jonek <herrian> euskara ikasi zuen herria* izen-sintagma baina beste batzuek ez dutelako irakurketa ontzat ematen.

Gramatikaltasuna hizkuntzalariaren erabakia da neurri batean eta haren azalpenaren eskutik dator nozio hau. Alegia, hizkuntza aztertzen duenak esan behar du perpaus bat zergatik den edo ez den onargarria, zein erregela edo arau betetzen den edo ez den betetzen. Normalean, hiztunak onartzen duen perpausa gramatikala izango da, jakina, baina baliteke hizkuntzalariaren ustez hiztunak onartzen duena gramatikala ez izatea. Edo hiztunak onartzen ez duena gramatikala izatea. Esaterako, hiztun askok ez dute onartzen *baserri honetako leihoko zuloa eta etxe horretakokoa* motako juntadura baina bai *baserri honetako leihoaren kolorea eta etxe horretakoarena*. Printzipioz, elipsi mota berdina erabili dugu kasu bietan paraleloak diren izen-sintagmetan:

(35) a. Baserri honetako *leih*oko *zul*oa eta etxe horretako ~~*leiho*~~-ko ~~*zulo*~~-a
b. Baserri honetako *leih*oaren *kolor*ea eta etxe horretako ~~*leiho*~~-aren ~~*kolore*~~-a

Zergatik ez dute hiztun askok (35a) onartzen? Agian kakofonia hutsa delako, arazo estetikoa ia. Hala ere, aztertzaileak pentsa dezake perpausa badela gramatikala, euskaran elipsi arruntak baimentzen duenaren araberakoa alegia[14]. Aitzitik, batzuetan kontrakoa gerta liteke: hiztunak onartu edo sortu egiten du gramatikaren araberakoa ez den perpaus bat: Mitxelenaren harako *ez ditut gehien bat aurkitu bila* ***nenbiltzanak*** izan liteke horren adibide bat. Hau da, *nenbilen* adizki iragangaitzak ezin eduki dezake absolutibo osagarri zuzenarekiko numero komunztadurarik berez, baina hemen asmatu egin du Mitxelenak. Printzipioz, hiztunak onartu du (bere buruari onartu dio) gramatikak posible egiten ez duena (*cf. *bila nabiltzan adibideak* vs *bilatzen ditudan adibideak*)[15].

Datu positiboak eta negatiboak. Kapituluan barrena ere atera zaigu dagoeneko gai hau. Hizkuntza deskribatzea gogo-garunean garatu dugun gaitasunaren berri ematea bada, hizkuntzalariak datu positiboak behar ditu, noski. Hau da, benetan hiztunak zer esan duen edo zer onartzen duen hartu behar du aintzat. Hori corpus batean agertuko zaio, esaterako:

(36) N*ork* hil zuen Leyre Olcoz? [15. or.]
(37) N*ork* esan dizu nazionalista naizela? [154. or.]
(38) N*ork* hil zuen Norma Jean? [306. or]
[adibide guztiak Luis Garde, *Aireportuko musika*, Iruñea, Pamiela, 2020]

14. Euskaltzaindia (1993) iritzi horretakoa da, baina ezaguna da Mitxelena (MEIG-VI, 1988, 177. or.) *koko* horien kontra mintzatu zela.

15. *Bost axola dit esan duzuna* izan liteke hiztun batzuentzat onargarria den baina (teorian behintzat) gramatikala ez den zerbaiten adibidea, *dit* adizkiak ergatibo komunztadura eskatzen baitu.

Lagin txiki horretan zera egiaztatzen dugu *nork* galde-hitzari buruz: berau adizki jokatuaren aurre-aurrean agertzen dela. Hori al da galdetzailea sintaktikoki deskribatzeko behar dugun guztia? Esaterako, Garderen nobela berean hauxe irakurtzen dugu:

(39) *Zergatik* ez zidaten etxera bidali dokumentazio hura? [22. or.]
(40) Ez luke ulertuko *zergatik* gizon dotoreak jarri duen berarengan gurazko aberriaren funtsa eta esentzia. [113. or]

Honen arabera, ematen du *zergatik* galde-hitzaren ezaugarria dela noiz aditzaren aurre-aurrean paratzen dela noiz harengandik urrunduta agertzen dela. Galdera da: berdin gertatzen da *nork* galdetzailearen kasuan? Ez dakigu nobela hau arakatuta; beraz, Marteko hizkuntzalaria bagina, hiztunei galdetu beste biderik ez genuke izango. Hots, ea honakoak onargarriak egiten zaizkion Garde idazleari:

(41) onargarria al da?: *Nork Leyre Olcoz hil zuen?*
(42) onargarria al da?: *Nork nazionalista naizela esan dizu?*
(43) onargarria al da?: *Nork Norma Jean hil zuen?*

Liburu honen egileok ez diogu Luis Garderi galdetu perpaus horietaz duen iritzia, eta ez dugu Euskal Herrian barrena inkestarik egin, baina gaude gaur egungo hiztun gehienek (41-43) perpausei * edo oso zalantzazkotzat behintzat ?? deritzetela.

(41') * Nork Leyre Olcoz hil zuen?
(42') * Nork nazionalista naizela esan dizu?
(43') * Nork Norma Jean hil zuen?

Beraz, gaur egungo galdetzaileen portaera sintaktikoa aztertu nahi badugu, hiztunek zer esaten duten hartu behar da aintzat (eta perpaus mota jakin bat nobela batean agertzea aski esanguratsua da), baina hiztunek zer ez duten esaten edo zer ez duten onartzen ere hartu behar da aintzat. Definizioz, datu negatiboak ez dira corpus batean edo hizketa naturalean eta bat-batekoan agertuko; hiztunei galdetuta (inkesta, esperimentu edo galdetegi baten bidez) lortu behar ditugu datuok[16].

16. Leizarragaren euskaran ez dirudi (41-43) bezalakoak ezinezko zirenik:

(i) a. (...) *nork* hiri eman drauk authoritate hori?
b. *Nork* bekatuak barka ahal ditzake lainkoak berak baizen?

Adibide gehiago ere badira euskal testuen historian barrena (*cf. Peru Abarka* liburuko *Nok maija bedeinkatuko dau?* 19. mendean). Beraz, gaurko egoerak ez du zertan iraganeko berdina izan. Nolanahi ere, argi dago iragan mendeetako euskaldunengandik datu negatiborik printzipioz ezin duguna lortu.

Hiztunaren intuizioa. Chomsky izan da agian jatorrizko hiztunaren garrantzia datuen alorrean gehien azpimarratu duten hizkuntzalarietarikoa edo jatorrizko hiztunaren intuizioak maila gorenera eraman dituena. Goodallek (2021) gogora dakarren moduan, onargarritasuna azken batean hiztunak hizkuntza-estimulu baten aurrean duen pertzepzioa da, eta esperimentu batean hiztunari bere pertzepzioaren berri emateko eskatzen zaio. Chomskyk (1965) *intuizio* hitza darabil eta *introspekzio* hitza ere aipatu izan da, are *epaia* ere. Hitz hauek guztiek dauzkate beren eragozpenak edo gaizki-ulertuetako bideak (*epai* hitzak deliberazio luzearen aukera dakar gogora, esaterako; *introspekzio* hitzak iradoki dezake hiztuna jakitun dela hizkuntzaren barne funtzionamenduaren muinaz, eta abar). Oro har, onargarritasun-esperimentuak modu egituratu eta antolatuan egin daitezke eta hiztunak hizkuntza-estimuluen aurrean dituen sentipenak neurtzeko balio dezakete. Ez dira, beraz, hiztun baten burutazio edo inpresio hutsak; aitortu egin behar da, hala ere, oraindik ere badirela informatzaile gisa beren burua bakarrik erabiltzen duten hizkuntzalariak. Gure ustez, komeni da beti ere datuak sendoak eta komunitate zabal batek partekatuak izatea. Nolanahi ere, irakurle interesatuari gomita luzatzen diogu egiazta dezan garai bateko hiztunaren intuizio (ustez inpresionistiko) hutsetatik gaur egungo onargarritasun-esperimentu sofistikatuetara jauzi handia dagoela, Goodallen (2021) liburua lekuko.

1.6. Laburpena

Hizkuntzaz liburu honek duen ikuspegia azaldu dugu kapitulu honetan: funtsean, hizkuntza giza gogo-burmuinaren ezaugarria dela defendatu dugu eta, hizkuntza gizakiaren sena den neurrian, funtsean hizkuntza guztiak bat direla iradoki dugu. Geure abiapuntuaren inguruko xehetasunak jorratu ditugu ondoren: hizkuntza bakoitza hiztun batek gogo-burmuinean garatu duen gaitasun gisa ulertzen dugu (barne-hizkuntza gisa alegia); *gramatika* hiztunak garatu duen gaitasun hori eta, aldi berean, gaitasun horren deskribapena besterik ez da. Hizkuntza guztiek partekatzen duten funtsa, berriz, *gramatika unibertsala* deitu izan dena litzateke: era berean, espeziearen ezaugarri den, eta esperientziaren aurrekoa den, gramatika unibertsal horrek azaldu behar du zergatik diren hizkuntzak aldi berean berdinak baina bereiziak. Ondoren, hizkuntza aztertzeko bideak ere aipatu ditugu: ohiko bideak erabiltzea komeni da (corpusak, ahozko bildumak, testuak), baina ezinbestekoa da gure ustez hiztunen intuizioak ere aztertzea, bai zer onartzen duten bai zer ez duten onartzen jakitea. Gero, hizkuntza guztiak besarkatzen dituzten hatsarreen aipamena egin dugu (egitura-mendekotasuna, esaterako), eta hizkuntzen arteko aldakortasuna azaldu nahi duten parametroen berri ere eman dugu (galde-hitzak aurreratu *bai/ez* delako parametroa, adibidez).

Azkenik, funtsezkoak begitantzen zaizkigun zenbait kontzeptu errepasatu ditugu. Sarreratxo honen ostean, sintaxiaren muinera konplexurik gabe dzanga egiteko tenorea heldu zaizu, irakurle.

Gaian sakontzeko

Kapitulu honetan landutako kontzeptuen inguruan sakontzeko, irakurleak Chomskyren lanetara jo dezake, zuzenean. Chomsky (1957) euskaraz ere irakur daiteke Itziar Lakari esker (*Egitura Sintaktikoak*, 2003). Hala ere, Chomskyren ideien laburpen bikaina dago Etxepare eta Irurtzun (2007) artikuluan; Gallego (2002) liburuaren lehen kapituluak ere balioko luke horretarako. Jabekuntzari dagokionez, ezin Gutiérrez eta Ezeizabarrena (2022) liburu didaktiko eta dibertigarria aipatu gabe utzi. Garrantzi apalagoko gaiei dagokienez: *zergatik* galdetzailearen berezitasuna Irurtzun (2021) lanean jorratzen da; *-enik* eta *-ela* menderagailuen arteko ezberdintasunaren berri edukitze aldera ikusi Elordieta eta Artiagoitia (2018). Sintaxizko esperimentuez gehiago jakite aldera, irakurleak Goodall (2021) eta Sprouse (2023) eskuliburu zabaletako artikuluetara jo dezake argi bila.

Ariketak

1. Jarraian euskarari buruzko baieztapen batzuk daude. Eztabaidatu eta argudiatu, ikaskide batekin elkarlanean, ea baieztapenok barne-hizkuntzari buruzkoak, kanpo-hizkuntzari buruzkoak, edo (agian) biei buruzkoak diren:

(1) Euskara Euskal Herriko zazpi herrialdeetan eta Ameriketako hainbat lekutan hitz egiten da.
(2) Mirenek euskara ikasi zuenean, asko kostatu zitzaion adizki alokutiboen forma guztiez jabetzea.
(3) Iparraldean leku gutxitan daude bide-seinaleak euskaraz eta frantsesez.
(4) Euskarazko galdetzaileak aditz jokatuaren aurre-aurrean jartzen dira normalean.
(5) Maddi Sarako euskalduna da jaiotzez, eta nekez ulertzen die Barkoxeko hiztunei.

2. *Nz*-tasunaren sendotasun/ahultasun parametroak *nz*-hitzak mugidaren bidez edo *in situ* tratatzen dituzten hizkuntzak bitan banatzen ditu: ingelesak edo kitxuak *nz*-hitzen aurreratzea dauka eta japonierak, ordea, ez; frantsesak era bietara joka dezake, antza, lehen begiratu batean (ikus kapituluan zehar landu ditugun 22-25 bitarteko adibideak).

a. Orain aintzat hartu itzazu beheko euskarazko adibideak; zein balore edukiko luke euskarak eta zergatik? Laburki azaldu zure iritzia, ahal dela adibideek (baita onargarriak ez direnek ere) daukaten inplikazioa argituz:

(1) Zer erosi du Jonek? (*cf.* iparraldeko *zer du Jonek erosi* ?)
(2) Jonek zer erosi du?
(3) Zer ez du Jonek erosi?
(4) * Ez du Jonek zer erosi? [(3) adibidearen interpretazio berdinarekin]
(5) Zer uste duzu erosi duela Jonek?
(6) *Uste duzu Jonek zer erosi duela? [(5) adibidearen interpretazio berdinarekin].

b. Ondoren, aintzat har itzazu nafar-lapurteraz mintzo diren gazteen hizkeratik ateratako datuak (Duguine eta Irurtzun, 2010):

(7) Nork gereziak jan ditu?
(8) Noiz gereziak jan dituzu?
(9) *Zer Jonek jan du?
(10) Nori gereziak eman dazkozu?
(11) *Zer Peiori eman dakozu?

Nafar-lapurteraz mintzo diren gazteon euskara honek, goiko hizkera estandarrak bezala jokatzen du edo beste era batera? Beste modu batera galdeturik: (7-11) bitarteko adibideak ariketaren (a) atalean eman duzun hipotesiarekin azaldu ahal dituzu ala beste azterbide alternatibo bat behar da? Zein litzateke azterbide hori? Arrazoitu zeure erantzuna.